


CONFERENCIA XXVII. KONFERENTZIA



Intergrupos Parlamentarios "Paz y Libertad en el Sahara"
"Bakea eta Askatasuna Saharan" Taldearteko Parlamentarioak
Intergrups Parlamentaris "Pau i Libertat al Sahara"
Intergrupos Parlamentarios "Paz e Libertade no Sahara"

GASTEIZKO ADIERAZPENA

2024ko urtarrilaren 13a

"Bakea eta askatasuna Mendebaldeko Saharan" taldearteko parlamentarioen XXVII. Konferentzia Gasteizen bilduta, Eusko Legebiltzarraren egoitzan, 2024ko urtarrilaren 13an, Espainiako Estatuko parlamentu autonomikoak ordezkatuz, askatasunean dagoen saharar herriaren etorkizunaren aldeko konpromisoa berritu dugu, eta honako **ADIERAZPEN** hau hartu dugu:

Oso garrantzitsuak izan dira taldearteko parlamentarioen aurreko konferentzietan lortutako akordioak, eta berretsi egiten ditugu 1992ko Palmako Konferentziaz geroztik onartutako adierazpenak. Horietan, besteak beste, zalantzarik gabeko erreklamazioa egiten zen, Nazio Batuen ebazpenetan oinarritua, eta Nazioarteko Zuzenbidearekiko begirunerik zorrotzenez, Saharako herriak erreferendumaren bidez autodeterminatzeko duen eskubide legitimoa, deskolonizazio-prozesuaren azken urrats gisa.

Konferentzia ez dator bat Espainiako Gobernuko presidentek Mendebaldeko Saharari buruz egin duen erabateko aldaketa historikoarekin.

Beste behin ere esaten dugu Fronte Polisarioa saharar herriaren ordezkari legitimoa eta bakarra dela, NBEk eta nazioarteak horrela aitortuta.

Salatzen dugu, berriz ere, Marokok Mendebaldeko Saharan duen presentzia legez kanpoko dela eta ezin duela eragin juridikorik edo politikorik izan Saharako herriak autodeterminaziorako eta independentziarako duen eskubideari kalte egiteko.


Oraindik ere oso beharrezkoa da Legebiltzarreko hainbat misioen lana, lurralde okupatuetan sahararren aldeko adierazpen-, bilera-, elkartze- eta manifestazio-eskubideak larriki urratu direla egiaztatzeko, eta Nazio Batuen ebazpenak bete daitezela eta giza eskubideak errespetatu daitezela eskatzeko.

2023ko otsailaren 1ean eta 2an Toledon egin zen 47. EUCOCO n egindako lana funtsezkotzat jotzen dugu, eta azken manifestua eta tailerren ondorioak onartzen ditugu.

Europar Batasunaren eta Marokoren arteko akordioari dagokionez, Luxenburgon egoitza duen Europako Justizia Auzitegiaren epaia albiste eta funtsezko aurrerapen gisa jaso zela egiaztatu da. Epaia horren arabera, "Marokoko Erresumak Mendebaldeko Sahararen gainean duen subiranotasuna ez du onartzen ez Europar Batasunak, ez haren estatu kideek, ezta, oro har, NBEk ere". Horregatik, beharrezkoa da Espainiak eta Europar Batasunak Fronte Polisarioarekin negoziatzen hastea, merkataritza- eta ekonomia-harreman egokiak ezartzeko.

Gdim Izikeko presoek gure atxikimendua eta elkartasuna berresten diegu, legez kanpoko eta bermerik gabeko prozesu batean zigor bidegabeak jaso zituztelako, eta berehala askatzea eskatzen dugu, eta haien familiei justiziaren eta askatasunaren aldeko borrokan laguntzen diegu.

CONFERENCIA XXVII. KONFERENTZIA




Intergrupos Parlamentarios "Paz y Libertad en el Sahara"
"Bakea eta Askatasuna Saharan" Taldearteko Parlamentarioak
Intergrupps Parlamentaris "Pau i Libertat al Sahara"
Intergrupos Parlamentarios "Paz e Libertade no Sahara"

Taldearteko parlamentarioen Konferentzia honetan jorratutakoarekin bat etorriz, eta eskakizun-maila gorenean, honako hau erabaki dugu:

- Mendebaldeko Sahara Nazioarteko Zuzenbidearen menpe dagoen eta Marokoko Erresumarena inoiz izan ez den lurralde ez-autonoma dela egiaztatzea eta, horregatik, Mendebaldeko Sahararen legez kanpoko okupazioa bertan behera uzteko exijitzen dugu eta Saharako herriak autodeterminaziorako duen eskubidea aldarrikatzen dugu.
- Auzitegi Nazionalak Espainiari buruz emandako autoa erreferentziatzen hartzen jarraitzea, Mendebaldeko Saharako "de iure potentzia administratzaile" gisa.
- Marokoko Erresumari eskatzea berehala aska ditzala Saharako preso politikoak eta kontzientzia-presoa, eta bertan behera utz ditzala giza eskubideen urraketa kontrolatzen dituen espetxeetan, preso osotasun fisiko eta psikikoa bermatuz. Baita familiekiko elkartasuna adieraztea ere. Era berean, sahararrek lurralde okupatuetan dituzten giza eskubideen urraketa gaitzesten dugu.
- Nazio Batuei eskatzea Mendebaldeko Saharako gatazkaren konponbide bidezkoa eta behin betikoa sustatzeko, luzamendurik gabe. Konponbide hori lortzeko, Saharako herriaren autodeterminazio-eskubidea gauzatu behar da erreferenduma eginez. Eta NBERen Genevako Giza Eskubideen Kontseiluari eskatzea Mendebaldeko Sahararako Giza Eskubideen errelatore bat izenda dezala.
- Mendebaldeko Saharan Marokoko Gobernuak baliabide naturalen espolioazioa salatzen jarraitzea, epaiak gorabehera, eta inguru horretan jarduten duten enpresei eskatzea nazioarteko zuzenbidea eta sahararren eskubideak errespetatu ditzatela. Interesatuiei (enpresak eta herrialdeak) Saharar Herriaren (Fronte Polisarioa) legezko ordezkariekin negoziazioak hasteko eskatuz.
- Mendebaldeko Saharan bizi den egoera larria ikusita, MINURSOk Mendebaldeko Saharan dituen funtzioak eta eginkizunak zabaldu behar dituela kontuan hartu behar dugu berriro. Horregatik, Nazio Batuei eskatzen diogu misioari ahalmena eman diezaioela sahararrek lurralde okupatuetan dituzten giza eskubideak zaintzeko eta babesteko.
- Europar Batasunari eskatzea Marokoko Erresumarekiko Lehentasunezko Akordioan ezarritako giza eskubideak errespetatzeko klausula bete dezala.
- Saharako Emakumeen Batasun Nazionalarekin (UNMS) dugun lankidetzaren politikoa indartzea, errefuxiatuen kanpamentuetan eta Lurralde Okupatuetan funtsezko eginkizun erabakigarria betetzen dutelako. Eta, aldi berean, giza eskubideen urraketa biktima gisa duten ikusezintasun-egoera salatzea. Eta Sultana Jayaren oroitza berezia.
- Estatu espainiarreko erakunde publikoei eskatzea jarrai dezatela laguntza ekonomiko, solidario eta humanitarioa ematen, bai Tindufeko kanpamentuetan errefuxiatuta dauden herritarrei, bai lurralde okupatuetako biztanle sahararrei.

Espainiako Estatuak Mendebaldeko Saharako egoerarekin duen lege- eta politika-erantzukizunaren jakitun den Taldearteko Konferentziak berretsi egiten du Espainiako Gobernuari dei egiten diola, honako hau bete dezan:

CONFERENCIA XXVII. KONFERENTZIA



Intergrupos Parlamentarios "Paz y Libertad en el Sahara"
"Bakea eta Askatasuna Saharan" Taldearteko Parlamentarioak
Intergrupps Parlamentaris "Pau i Libertat al Sahara"
Intergrupos Parlamentarios "Paz e Libertade no Sahara"

- Eska diezaiola Marokoko Erresumari Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan giza eskubideak zorrotz errespetatzeko eta sahararrek jasaten dituzten eskubide-urraketak eteteko. Era berean, eskatzen dio aktiboki lan egin dezala Nazio Batuen eta Europar Batasunaren baitan, MINURSOk bere funtzioak zabaldua ikus ditzan, baita Mendebaldeko Saharan giza eskubideak betetzen direla zaintzeko eta babesteko ere.
- Fronte Polisarioak Espainian duen ordezkari-tzari estatus diplomatikoa emateko bidean aurrera egitea, saharar herriaren ordezkari bakarra eta legitimoa den aldetik, NBEk hala aitortuta.
- Sahararrekiko lankidetzeta eta laguntza humanitaria areagotzea, bai errefuxiatuen kanpamentuetan, bai lurralde liberatuetan, azken urteotan Espainiako Lankidetzeta Agentziaren ekarpenak murriztu direla kezka egiaztatuta. Era berean, Mendebaldeko Sahararako funts europarren gehikuntza azpimarratu behar da.

Azkenik, Eusko Legebiltzarreko Taldearteko XXVII. Konferentzia, gizartearen eginkizunari dagokionez, honako hau adierazi nahi du:


- Mendebaldeko Saharako gatazka gizarteak ematen dion garrantzi berarekin tratatzeko eskatzen diegu komunikabideei. Eta pertsona solidarioak animatzen ditugu sare sozialen bidez Mendebaldeko Sahararen egoera zabaldu eta salatzea.
- Gure parlamentuek Saharako Legebiltzarrekin dituzten harreman instituzional eta politikoa errazteko konpromisoa hartzen dugu. Horregatik babesten dugu saharar herriaren alde Aljerreko azken Konferentzian aurkeztu zen legebiltzarkideen sarea.
- Unibertsitate, justizia eta politika eta administrazio arloei eskatzen diegu lanean jarrai dezatela Mendebaldeko Saharan giza eskubideen aurka gertatzen diren jarduerak argitzeko.
- Gure esker ona adierazi nahi diegu saharar herriarekiko adiskidetasunaren alde egunez egun lan egiten duten elkarteei, federazioei eta elkartasun- eta gizarte-taldee, haien helburu bakarra anaia-herriarentzat etorkizun askea lortzea baita.
- "Oporrak Bakean" eta "Madrasa Proiektua" haurren harrera-programaren funtsezko garrantzia balioesten dugu, saharar familiekiko elkartasunaren eta afektu- eta hurbiltasun-harremanen adierazle nagusiak baitira.

Taldearteko parlamentarioek, amaitzeko, lehentasunezko lantzat hartzen dugu lurralde okupatuetako sahararrei laguntzea. Horregatik, 2024an behaketa-misioak bidaltzen jarraituko dugu.

Eta konpromisoa hartzen dugu Portugalen 2024an egingo den 48. EUCOCO Konferentzian parte hartzeko, bai eta Aljerian 2024an egingo den Parlamentu arteko Konferentzian ere, Aljeriako Parlamentuak antolatuta.

Gasteizko adierazpen hau Nazio Batuen idazkari nagusiari, Genevako Giza Eskubideen Kontseiluari, Espainiako Errege Etxeari, Espainiako Gobernuari, Europako Batzordeari, Fronte Polisarioak Espainian duen Ordezkaritzari, Saharako Parlamentuari (Saharako Kontseilu Nazionala), Marokoko Gobernuari, Afrikako Batasunari, Europako Parlamentuari, Afrikako Parlamentuari, Espainiako Kongresu eta Senatuari eta parlamentu autonomikoei igorriko zaie.

CONFERENCIA XXVII. KONFERENTZIA



Intergrupos Parlamentarios “Paz y Libertad en el Sahara”
“Bakea eta Askatasuna Saharan” Taldearteko Parlamentarioak
Intergrups Parlamentaris “Pau i Libertat al Sahara”
Intergrupos Parlamentarios “Paz e Libertade no Sahara”

DECLARACIÓN DE VITORIA GASTEIZ

13 de enero de 2024

Reunida en Vitoria-Gasteiz, en la sede del Parlamento Vasco/Eusko Legebiltzarra, la **XXVII Conferencia de los Intergrupos parlamentarios “Paz y libertad en el Sáhara Occidental”**, representando a los Parlamentos Autonómicos del Estado Español, el día 13 de enero de 2024, renovamos nuestro compromiso con el futuro en libertad del pueblo saharavi y adoptamos la siguiente **DECLARACIÓN**:

Han sido muy importantes los acuerdos alcanzados en las anteriores Conferencias de Intergrupos parlamentarios y nos reafirmamos en las sucesivas declaraciones aprobadas desde la Conferencia de Palma de Mallorca de 1992, en las que, entre otras cuestiones se hacía una reclamación inequívoca y fundamentada en las resoluciones de Naciones Unidas y en el más estricto respeto al Derecho Internacional del legítimo derecho del pueblo saharavi a su autodeterminación mediante referéndum, como último paso al proceso de descolonización que persiste desde hace décadas.

La Conferencia expresa de nuevo su disconformidad con el cambio radical e histórico del presidente del Gobierno de España sobre el Sahara Occidental.

Una vez más afirmamos que el Frente Polisario es el legítimo y único representante del pueblo saharavi, así reconocido por la ONU y la comunidad internacional.


Denunciamos, de nuevo, que la presencia marroquí en el Sáhara Occidental es ilegal y que no puede tener efectos jurídicos o políticos que menoscaben el derecho del pueblo saharavi a la autodeterminación e independencia.

Sigue siendo muy necesario el trabajo de distintas misiones parlamentarias, para constatar las graves vulneraciones en los territorios ocupados de los derechos de expresión, reunión, asociación y manifestación hacia la población saharavi y la exigencia de que se cumplan las resoluciones de Naciones Unidas y el respeto a los derechos humanos.

Valoramos como esencial el trabajo realizado en la 47 EUCOCO, celebrada en Toledo, los pasados días 1 y 2 de diciembre de 2023, y asumimos el manifiesto final así como las conclusiones de sus talleres.

Respecto al acuerdo entre la Unión Europea y Marruecos se constata que fue recibida como una gran noticia y un avance esencial las sentencias del Tribunal Europeo de Justicia, con sede en Luxemburgo, que manifestó que “la soberanía del Reino de Marruecos sobre el Sáhara Occidental no está reconocida ni por la Unión Europea ni por sus Estados miembros ni, de manera más general, por la ONU”. Por ello es necesario que España y la Unión Europea inicien negociación con el Frente Polisario en orden a establecer las oportunas relaciones comerciales y económicas.

CONFERENCIA XXVII. KONFERENTZIA



Intergrupos Parlamentarios "Paz y Libertad en el Sahara"

"Bakea eta Askatasuna Saharan" Taldearteko Parlamentarioak

Intergrups Parlamentaris "Pau i Libertat al Sahara"


Intergrupos Parlamentarios "Paz e Libertade no Sahara"

Reiteramos nuestro afecto y solidaridad a los presos de Gdim Izik que recibieron injustas condenas en un proceso ilegal y sin garantías y exigimos su inmediata liberación y acompañamos a sus familias en su lucha por la justicia y su libertad.

De acuerdo con lo tratado en la presente Conferencia de Intergrupos parlamentarios, y en el máximo nivel de exigencia, acordamos:

- Constatar que el Sáhara Occidental es un territorio no autónomo sometido al Derecho Internacional que nunca ha pertenecido al Reino de Marruecos y por ello le exigimos que cese la ocupación ilegal del Sáhara Occidental y el ejercicio del derecho del pueblo saharauí a la autodeterminación.
- Seguir considerando de referencia el Auto de la Audiencia Nacional que se pronuncia sobre España como "potencia administradora de iure" del Sáhara Occidental.
- Exigir al Reino de Marruecos que se produzca la inmediata liberación de los presos políticos y de conciencia saharauíes y cesen las violaciones de derechos humanos en las prisiones que controla garantizando la integridad física y psíquica de los presos. Así como trasladar la solidaridad con sus familias. Así mismo condenamos la vulneración de los derechos humanos de la población saharauí en los territorios ocupados.
- Instar a Naciones Unidas a que promueva sin más dilación la solución justa y definitiva del conflicto del Sáhara Occidental, solución que pasa por llevar a la práctica el derecho de autodeterminación del pueblo saharauí mediante la celebración del referéndum. E instar al Consejo de Derechos Humanos de la ONU en Ginebra a que nombre a un Relator de Derechos Humanos para el Sáhara Occidental.
- Continuar denunciando el expolio de los recursos naturales, a pesar de las sentencias, en el Sáhara Occidental por parte del Gobierno de Marruecos y exigir a las empresas que operan en la zona el respeto al derecho internacional y a los derechos de la población saharauí. Instando a los interesados (empresas y países) a entablar negociaciones con los legítimos representantes del Pueblo Saharauí (Frente Polisario).
- Reiterarnos en la consideración de que, a la vista de la grave situación que se vive en el Sáhara Occidental, la MINURSO amplíe sus funciones y cometidos en el Sáhara Occidental. Por ello instamos a Naciones Unidas a que dote a la Misión de la potestad para la vigilancia y salvaguarda de los derechos humanos de la población saharauí en los territorios ocupados.
- Exigir a la Unión Europea que haga efectiva la cláusula de respeto a los derechos humanos establecida en el Acuerdo Preferencial con el Reino de Marruecos.
- Reforzar nuestra cooperación política con la Unión Nacional de Mujeres Saharauíes (UNMS) por el papel fundamental y decisivo que desarrollan en los campamentos de la población refugiada y en los Territorios Ocupados. Y a la vez hacer un llamamiento en relación con su situación de invisibilidad, víctimas de la violación de los derechos humanos en las zonas ocupadas.

CONFERENCIA XXVII. KONFERENTZIA



Intergrupos Parlamentarios "Paz y Libertad en el Sahara"
"Bakea eta Askatasuna Saharan" Taldearteko Parlamentarioak
Intergrups Parlamentaris "Pau i Libertat al Sahara"
Intergrupos Parlamentarios "Paz e Libertade no Sahara"

- Instar a las instituciones públicas del Estado Español a continuar e incrementar el apoyo económico, solidario y humanitario, tanto a la población refugiada en los campamentos de Tinduf como a los habitantes saharauis de los territorios ocupados.


La Conferencia de Intergrupos, consciente de la responsabilidad legal y política que el Estado Español tiene con la situación en el Sáhara Occidental, reitera el llamamiento al Gobierno de España para que:

- Exija al Reino de Marruecos el escrupuloso respeto a los derechos humanos en los territorios ocupados del Sáhara Occidental y el cese de las vulneraciones de derechos que sufre la población saharauí. Y así mismo le insta a que trabaje activamente, en el seno de Naciones Unidas y de la Unión Europea, para que la MINURSO vea ampliadas sus funciones también a la vigilancia y salvaguarda del cumplimiento de los derechos humanos en el Sáhara Occidental.
- Se avance hacia el otorgamiento de un estatus diplomático a la Representación del Frente Polisario en España, como único y legítimo representante del pueblo saharauí, así reconocido por la ONU.
- Aumente la cooperación y la ayuda humanitaria con la población saharauí, tanto en los campamentos de refugiados como en los territorios liberados al constatar con preocupación la reducción de las aportaciones de la Agencia Española de Cooperación en los últimos años. Así mismo que se incida en el aumento de los fondos europeos para el S.O.

Por último la XXVII Conferencia de Intergrupos del Parlamento Vasco, en relación con el papel de la sociedad, quiere manifestar lo siguiente:

- Instamos a los medios de comunicación a tratar el conflicto del Sáhara Occidental con la misma importancia y relevancia que le confiere la sociedad. Y animamos a tantas personas solidarias a que a través de las redes sociales difundan y denuncien la situación del Sáhara Occidental.
- Nos comprometemos a facilitar las relaciones institucionales y políticas de nuestros parlamentos con el Parlamento Saharauí. Por ello apoyamos la Red de parlamentarios que en favor del pueblo saharauí fue presentada en la última Conferencia de Argel.
- Instamos a los ámbitos universitarios, judiciales y político-administrativos a seguir trabajando por el esclarecimiento de las actuaciones contra los derechos humanos ocurridas en el Sáhara Occidental.
- Expresamos nuestro agradecimiento a las asociaciones, federaciones y colectivos solidarios y sociales que trabajan día a día unidos por la amistad con el pueblo saharauí y cuyo único fin es lograr un futuro en libertad para el pueblo hermano.
- Valoramos la importancia fundamental del programa de acogida de niños y niñas "Vacaciones en Paz" y del "Proyecto Madrasa", máximos exponentes de la solidaridad y de las relaciones de afecto y cercanía con las familias saharauí.

CONFERENCIA XXVII. KONFERENTZIA



Intergrupos Parlamentarios "Paz y Libertad en el Sahara"
"Bakea eta Askatasuna Saharan" Taldearteko Parlamentarioak
Intergrups Parlamentaris "Pau i Libertat al Sahara"
Intergrupos Parlamentarios "Paz e Libertade no Sahara"

Para finalizar los Intergrupos parlamentarios establecemos como trabajo prioritario el apoyo a la población saharauí de los territorios ocupados. Por ello seguirán enviándose a lo largo de 2024 misiones de observación.

Y nos comprometemos a participar en la 48 Conferencia EUCOCO que se celebrará en Portugal en 2024 así como en la Conferencia Interparlamentaria que se celebrará en Argelia en 2024 organizada por el Parlamento de Argelia.

La presente Declaración de Vitoria-Gasteiz se remitirá al Secretario General de Naciones Unidas, al Consejo de Derechos Humanos de Ginebra, a la Casa Real de España, al Gobierno de España, a la Comisión Europea, a la Representación del Frente Polisario en España, al Parlamento Saharauí (Consejo Nacional Saharauí), al Gobierno de Marruecos, a la Unión Africana, al Parlamento Europeo, al Parlamento Africano, al Congreso y Senado de España y a los Parlamentos Autonómicos.